

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Eraman enpresak behar bezala funtzionatu dezan hainbat beharrezko baliabide hartu behar dira kontuan.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoei dagokienez, prozesu guztia kudeatu eta Zonzini enpresak ekoiztutako karroak gordetzeko biltegia eta bulegoak behar ditugu. Hauek Donostiako (Martuteneko) eraikuntza batean kokatzea erabaki dugu. Era horretan, Pasaiako eta Bizkaiako portuak, Espainiako portu garrantzitsuenetakoak, erabili ahal izango ditugu Zonzinik Italiatik esportatutako karroak jasotzeko. Horrez gain, gure bizilekutik gertu dago eta Euskal Herriko jendeari emango diogu lana. Instalazio honek 500m² izango ditu eta alokairuak hilabetean 1900€ balioko ditu. Eraikin hortan espazio nahikoa dago biltegi bat eta bulegoak eraikitzeko.

Horrez gain, kamioi enpresa bat kontratatuko dugu, San Jose, itsasontzitik datozen karro autonomoak eta biltegi eramateko eta biltegian daudenak denda ezberdinetara elarazteko. Produktua webgunetik erosi duten bezeroei karroa banatzeaz ere garraio enpresa hau arduratuko da.

Bestalde, baliabide intelektuak eta giza baliabideei erreferentzia eginez, hainbat langile kontratatzeaz gain, gu ere lanean arituko gara gure enpresan. Oier eta Urtzik duten informatika arloko ezagutzari esker behar bezala kudeatu ahalko dugu webgunea eta arazorik izanez gero berehala konpunduko lukete. Horrez gain, Uxue eta Ainhoa oso abilak dira kalkuluak egiten, eta beraz, diru kontuak eta irabazi zein galerak kudeatzeaz arduratuko lirateke. Era berean, Naroa bezeroekin harreman mantentzeaz gain (zalantzak argitzen telefono deien edo wegunearen bitartez), enpresa aliatuekin kontaktuan ere jarriko da, dena behar bezala dabilela zihurtatzeko. Gainera, moda eta abar asko gustuko duenez, karroen diseinuan ere esku bat botako du.

Gure enpresa aurrera eramateko beharrezkoak diren langileen artean honako hauek aipatu behar ditugu: diseinatzailea (karroa zein webgune eta logoa diseinatzeko) eta garbitzaileak (biltegia eta bulegoak garbitzeko).

Azkenik, finantzia-baliabideak ere beharrezkoak izango ditugu, hasierako mailegu bat gure kasuan. Hura Kutxa banketxeari eskatzea erabaki dugu eta 60.000€ ingurukoa izango da.